

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 338/2024 Erabakia, ekainaren 4koa. Onespena ematea lehiaketa arrun-terako 2024ko deialdiari, estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gor-detako lanpostu hutsak betetzeko Araban

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetzen diren zenbait lanpostu hutsik daudenez gero, kasuan kasuko korporazioek lanpostu huts horiek betetzeko oinarri espezifikoak onetsi dituzte, eta ohiko lehiaketaren bidez deia egitea adostu dute.

Bat etorritoki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen zazpigarren xedapen iragankorrean, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan eta Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen merezimendu orokorren balioespena arautzen duen otsailaren 16ko TFP/153/2021 Aginduan xedatutakoarekin, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuak hala proposaturik, eta gaur bertan Gobernu Kontseiluak bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Deialdia egitea estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetzen diren lanpostuetatik Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeetan hutsik daudenak betetzeko ohiko lehiaketarako, bat etorritoki IV. eranskinean jasotzen diren oinarrien eta baremo espezifikoaren laburpenarekin; III. eranskinean jasotzen da zein lanpostu diren.

Bigarrena. Lehiaketa 0 eranskinean (I. eta II. eranskinak barne) jasotzen diren oinarrien arabera egingo da.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango duzu Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluan, hilabeteko epean, erabaki hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

LAURA PÉREZ BORINAGA

0. ERANSKINA

OINARRIAK

Lehenengoa. Parte hartzea

1. Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioek parte har dezakete, duten sailkapenaren arabera haien azpieskalari eta kategoriari dagozkien lanpostuak betetzeko lehiaketetan.

Toki administrazioko idazkari, kontuhartzaile eta diruzainen lehengo kidego nazionalako funtzionarioek ere parte har dezakete —irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren 1. puntuari aipatzen dira—, oraingo azpieskaletan sarturik ez egon arren, modu honetan:

Hirugarren mailako idazkariak, idazkari-kontuhartzaileen azpieskalarako gordetako lanpostuetan.

“Iraungitzeko” dauden udal idazkariak, 2.000 biztanle baino gehiago ez daukaten udalen idazkaritzako lanpostuetan.

2. Ezingo dira lehiatu:

a) Epai edo administrazio ebazpen irmo baten ondorioz gaitasunik gabe utzitako funtzionarioak eta aldi batez kargurik gabe utziak, epaian edo administrazio ebazpenean ezarritako denbora igaro artean.

b) Kargurik gabe utzitako funtzionarioak, zehapena jarri zuen korporazioko lanpostuetarako, zehapenean ezarritako epea igaro artean.

c) Borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioak —urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratuak 89.1.a) eta b) artikuluan jasotako baldintzetan—, baldin eta ez badira bi urte igaro eszedentzia egoerara igaro zirenetik.

d) Edozein administrazio publikotan behin betiko destinoa lortu eta lanean bi urte eman ez dituzten funtzionarioak, salbu eta dauden korporazioan eta duten azpieskala eta kategoria berebean eskaintzen diren lanpostuak lortzeko lehiatzen badira.

Hala ere, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen Errege Dekretuaren 27. artikularen 1. apartatuaren c) letraren 2. puntuari jaso-tako kasuetan dauden funtzionarioek lehiaketan parte hartu ahal izango dute, nahiz eta bi urte ez igaro edozein administrazio publikotan behin betiko lortutako azken destinoan.

Bigarrena. Dokumentazioa eta parte hartzeko epea

1. EHAAn baterako lehiaketa argitaratu ondorengo hamabosgarren egun baliodunetik aurrera, estaturako gaikuntza duen funtzionarioek honako dokumentazio hau aurkeztu behar dute toki korporazio bakoitzean, lehiaketan parte hartu nahi badute:

— Eskaera bat lanpostu bakoitzeko, I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

— Zinpeko aitortpena, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 36.2 artikuluan aipatzen diren egoeretako batean ere ez dagoela egiaztatzen duena.

— Kasuan kasuko hizkuntza eskakizuna egiaztatu bada, euskararen eskakizuna betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa, nahitaezkoa bada.

— Lanpostuko merezimendu espezifikoen egiaztariak, baldin eta konputagarriak badira, bai eta autonomia erkidegoan zehaztutako merezimenduenak ere.

— Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 32. artikularen 1.g) apartatuan ezarritako bizitza pertsonala, familiara eta lanekoa uztartzeko merezimenduari buruzko egiaztariak.

2. Aldi berean bi lanpostu edo gehiagotarako lehiatuz gero, lehiatzaileek adjudikazioen lehen tasun ordena adierazi beharko dute, II. eranskinean ageri den ereduari jarraituz, eta hura bai Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailera (Probintzia plaza, 5, 01005, Vitoria-Gasteiz) bai Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzara (Eusko Jaurlaritzako erregistro elektronikoro korrraren bidez) bidali beharko da. Lehen tasun ordena bakarra izango da, eta eskatutako lanpostu guztiak jasoko ditu, azpieskala eta kategoria edozein izanda ere. Lehen tasuna adierazi behararen arrazoia da lehiakide bati lanpostu bat baino gehiago ez adjudikatzea, eta horrek ez du inola ere ordeztuko deialdia egin duen toki korporazioari zuzendutako banakako eskaera.

3. Eskatutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak, bai espezifikoak bai Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak, deialdi bateratua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea xedatzen duen ebazpenaren egunean beteta egon beharko dira.

4. Parte hartzeko eskaera eta lehen tasun ordena oinarri hauen amaieran erantsitako ereduaren arabera aurkeztu beharko dira.

Hirugarrena. Merezimenduen balioespena

1. Balioespen epaimahaiak lehiakideek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten ala ez egiaztatuko du, eta betetzen ez dituztenak kanpoan utziko ditu.

2. Jarraian, kanpoan geratu ez direnen merezimenduak balioetsiko dituzte, honela:

2.1. Balioetsi beharreko merezimendu orokorrak (gehienez 19,50 puntu) estaturako gaikuntza duten toki administrazioetako funtzionarioen erregistroan egiaztatuta eta inskribatuta daudenak izango dira, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzan interesdunen eskura egongo den banakako zerrendaren arabera. Zerrenda hori Eusko Jaurlaritzaren webgunean kontsultatu ahal izango da.

Zerrenda horretan agertzen den puntuazioa epaimahaiarentzat oinarri izango da lehiakide bakoitzaren merezimendu orokorrak balioesteko, eta lehiakideek ezin izango dute inolako egiaztapen gehigarriarik egin, ezta epaimahaiak bestelako balioespenik egin ere.

Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeari buruzko merezimendu orokorraren egiaztagiria, lehiaketan parte hartzeko eskaerarekin batera bidaliko dira eskatutako lanpostua dagoen toki korporazioa, eta kasuan kasuko balioespen epaimahaiak merezimendu orokor gisa balioetsiko ditu, hori bidezkoa bada, eta merezimendu horren puntuazioa ez da argitaratuko lehiaketaren deialdiaren egunean gainerako merezimendu orokorrekin batera.

Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeari buruzko merezimenduak egiaztatzeke, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Ezkontidea edozein administrazioetako enplegatu publiko finkoa bada, haren aurretiko destinoa:

• Ezkontidearen destinoa eta haren hornitze modua egiaztatzen dituen agiria, ezkontidea destinatuta dagoen administrazio unitate eskudunak emana.

b) Seme-alabak zaintzea:

1) Familia liburuaren kopia edo familia unitatea osatzen duten kideak egiaztatzen dituen agiri ofizialaren kopia, edo, hala badagokio, adopzioaren, harrera iraunkorraren edo adopzio aurreko harreraren ebazpen administratibo edo judizialaren kopia.

2) Guraso eskatzailearen adierazpena, behar bezala sinatua, lanpostuz aldatzeak adingabeari arreta hobea ematea ahalbidetzen duela bermatzen duten arrazoiak modu frogagarrian justifikatuz. Adierazpen hori baliozkoa izango da, baldin eta deialdian jasotako lanpostuaren kokapenari edo ordutegi ofizialari dagokionez justifikatuta badago, eta, hala badagokio, dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko dira. Adierazpen hori ez da kontuan hartuko, baldin eta balioespen epaimahaiak adierazpen horretan jasotzen den justifikazioa modu negatiboan balio gabetzen duen dokumentazio ofiziala badu.

c) Senitartekoren bat zaintzea:

1) Ahaidetasuna egiaztatzeko: familia liburuaren edo familia unitatea osatzen duten kideak egiaztatzen dituen agiri ofizialaren kopia eta/edo bigarren mailarainoko, hura barne, odol ahaidetasuna edo ezkontza ahaidetasuna egiaztatzen duten beste agiri publiko batzuen kopia.

2) Adinaren, istripuaren, gaixotasunaren edo desgaitasunaren ondoriozko mendekotasun egoera egiaztatzeko: mediku ziurtagiri ofiziala edo arlo horretan eskumena duen administrazio publikoko organoen agiria, alderdi horiek egiaztatzen dituena.

3) Senidearen baimen fede emailea, egiaztatutako merezimenduari buruzko datuak tratatzeko eta, hala badagokio, kontsultatzeko baimena ematen duena. Ezgaituta egonez gero, ebazpen judizialaren kopia aurkeztuko da, eta baimena tutoretza/kuradoretza duen pertsonak eman beharko du.

4) Jarduera ordaindurik egiten ez dela egiaztatzeko: Gizarte Segurantzako araubide batean ere alta emanda ez egotea egiaztatzen duen agiria, eta mendekotasuna duen pertsonaren adierazpena, inolako jarduera ordaindurik ez duela egiten dioena.

5) Beste udalerrri batetik sartu izana egiaztatzeko: mendekotasuna duen senidearen baimen fede emailea eman beharko da Bizilekuaren Datuak Egiaztatzeko Sistemaren kontsulta egiteko, erroldatze datuak ofizioz jaso daitezela. Baimen hori ematen ez bada, edo araudi erregulatuaren zehazten diren beste kasu batzuk gertatzen badira, eskatzaileak mendekotasuna duen senidearen errolda ziurtagiria aurkeztu beharko du.

6) Familia arreta onena egiaztatzeko: eskatzailearen adierazpena, behar bezala sinatua, lanpostuz aldatzeak senideari arreta hobea ematea ahalbidetzen duela frogatzen duten arrazoiak justifikatuz. Adierazpen hori ez da kontuan hartuko, baldin eta balioespen epaimahaiak adierazpen horretan jasotako justifikazioa era negatiboan balioegabetzen duen dokumentazio ofiziala badu.

Nolanahi ere, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeari buruzko meritu horiek eragin dituzten gertaerek bere horretan jarraituko dute lehiaketan adjudikatzen zaien lanpostuan hasi arte.

2.2. Epaimahaiak balioetsiko ditu autonomiak zehaztutako merezimenduak (gehienez ere 9 puntu), oinarri hartuta lehiakideek aurkezturiko egiaztagiria.

Eusko Jaurlearien Gobernu Kontseiluaren 1988ko azaroaren 8ko erabakiarekin bat etorriz (1988ko azaroaren 12ko EHAA, 212 zenbakia), honela banatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoari jartzea dagokion merezimenduen 9 puntuak:

– 6 puntu, izangaiak gai hauei buruz zer dakien eta zer lan egin duen balioesteko: Autonomia Estatutua, eskubide historikoak, Autonomia Erkidegoaren erakunde sareari buruzko araudia eta hizkuntza normalizazioaren plangintza (batez ere nola aplikatzen den administrazio publikoetan).

– 3 puntu, ekonomia itunaren ondoriozko berezitasun ekonomiko-administratiboei buruz izangaiak zer dakien eta zer lan egin duen balioesteko, eta, beraz, ogasunaren gaiari eragindako ondorioei buruz ere bai.

Autonomia erkidegoak zehaztutako merezimenduak honela egiaztatuko dira:

a) Gai horiei buruz antolatu diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi eta gainerako topaguneetan parte hartu izanaren egiaztagiria.

b) Espezialitate horiei buruz egindako argitalpenak eta lanak.

c) Espezialitate horiekin lotutako jardunaldi edo ikastaroetan hizlari edo irakasle gisa egindako parte hartzeak.

2.3. Merezimendu espezifikoen arabera gehieneko puntuazioa 1,50 puntukoa izango da.

Toki korporazio bakoitzak proposatutako merezimendu espezifikoko III. eranskinean jasotakoak dira.

Epaimahaiak balioetsiko ditu merezimendu espezifikoak eta autonomia erkidegoak zehaztutakoak, lehiakideek aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta.

Merezimendu espezifikoen baremorik ez duten lanpostuei dagokienez, epaimahaiak merezimendu orokorren puntuazioa baino ez du emango, eta, egonez gero, autonomiak zehaztutako merezimendua.

3. Era berean, epaimahaiak, kasuan kasuko deialdi espezifikoak hala jasotzen badu, elkarrizketa bat egin ahal izango du lehiakide batekin edo batzuekin, egokitzat jotzen badu merezimendu espezifikoak zehazteko edo autonomia erkidegoak finkatutakoak zehazteko eta, hala badagokio, euskararen ezagutza egiaztatzeko. Elkarrizketa egiteko, epaimahaiak gutxienez sei egun lehenago jakinaraziko die interesdunei zein egun, ordu eta tokitan egingo den.

4. Bi lehiatzailek edo gehiagok azken puntuazio berbera izaten badute, epaimahaiak autonomiari dagozkion merezimenduetan puntuaziorik handiena lortu duenari emango dio lehentasuna adjudikazio proposamenean. Berdinketak bere horretan irauten badu, autonomia erkidegoak zehaztutako merezimendu espezifikoetan puntuaziorik altuena duenaren alde ebatziko da. Berdinketak jarraitzen badu, merezimendu orokorretan puntuaziorik handiena duenaren alde, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 32.1 artikuluko lehentasun ordenaren arabera, eta, azken buruan, hautaketa prozesuko lehentasun ordenaren arabera.

Laugarrena. Euskararen balioespena

1. Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari (IVAP) dagokio zehaztea zer eduki eta itxura edukiko dituzten euskara egiaztatzeko probek, zeinak lehiaketako prozesu guztientzat batera deitu eta egin ahalko baitira.

Gauzak horrela, lehiakideek lehiaketan parte hartzeko eskaeran berariaz adierazi beharko dute hizkuntza eskakizun baterako edo batzuetarako proba egin nahi dutela, eta proba eskaera hori Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzara bidali beharko dute, adieraziz zein hizkuntza eskakizun egiaztatu nahi duten. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba egin nahi dela jakinarazi ezean, ezin izango da proba hori egin.

Inola ere ezin izango da egiaztatu lehiatzen den lanpostuak esleituta duena baino hizkuntza eskakizun handiagoak.

2. Proba horien bitartez ez ezik, hizkuntza eskakizunak IVAPek emandako ziurtagiri bidez ere egiaztatu daitezke, baita beste ziurtagiri baliokide batzuen bidez ere, bat etorritik azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak xedatutakoarekin, zeina baita euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta hizkuntzen europako erreferentzi marko bateratuko mailekin parekatzekoa. Dokumentazio hori lehiaketan parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

3. Euskara honela balioetsiko da, merezimendua denean:

- 4. hizkuntza eskakizuna edukitzeagatik: 7,12 puntu.
- 3. hizkuntza eskakizuna edukitzeagatik: 5,34 puntu.
- 2. hizkuntza eskakizuna edukitzeagatik: 3,36 puntu.
- 1. hizkuntza eskakizuna edukitzeagatik: 1,79 puntu.

Euskara jakitearen merezimenduaren gehieneko balioespena ez da inola ere baremo honetan deialdiko lanpostuari esleitutako hizkuntza eskakizunerako aurreikusitakoa baino handiagoa izango.

Bosgarrena. Kanpoan geratuko direnak

Balioespen epaimahaiak kanpoan utziko ditu eskatzen den euskara mailarik ez duten lehiakideak, euskara maila bete beharrekoa izan eta nahitaezko data igaro bada.

Seigarrena. Ebazpen proposamena

Indarrean dagoen legeriaren arabera korporazioan eskumena duen organo eskudunak lehiaketaren ebazpen proposamena egingo du, balioespen epaimahaiak egindako zerrendaren arabera. Ebazpen proposamen hori arrazoitua izango da, eta kontuan hartuko ditu deialdiaren erregelamendu arauak eta oinarriak. Kanpoan geratu ez diren hautagai guztiak eta haien puntuazioak jasoko ditu, puntuazio handienetik txikienera antolaturik, bai eta kanpoan geratu direnen zerrenda funtsatua ere.

Hartutako erabakiaren oinarri gisa, prozedura egoki bete dela eta izangaien merezimenduen azken balioespena behar bezala aintzat hartu dela egiaztatu beharko da, eta kanpoan geratu ez diren lehiakide guztiak eta haien puntuazioak agertu beharko dira proposamenean.

Ebazpen proposamena Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondorengo hogeita hamar egun balioduneko epean.

Zazpigarrena. Lehiaketa ebaztea eta izendapenak koordinatzea

Arabako Foru Aldundiak lehiaketa ebatziko du, eta horri buruzko ebazpena igorriko dio Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, azken horren eta Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioko Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Entitateekiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren artean izendapen bat baino gehiago saihesteko behar den koordinazioa egin ondoren. Ondorio horietarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, arrazoitzat joko dira epaimahaien eta korporazioen proposamen lotesleak eta lehiakideen lehentasun ordena.

Lehiakide batek lanpostu bat baino gehiago lortu eta lehentasun orririk egin ez badu, behin-behinean betetzen ari zen lanpostua zein den kontuan hartuz egingo da behin betiko adjudikazioa.

Zortzigarrena. Izendapenak egitea

Arabako Foru Aldundiak izendapenak egin eta ALHAOn argitaratuko ditu. Egin ere, koordinazioaren emaitzaren arabera egingo ditu, izangai bati lanpostu bat baino gehiago adjudikatu bazaizkio, eta korporazioen ebazpen proposamenaren arabera, gainerako egoeretan.

Bederatzigarrena. Lanpostuaz jabetzeko epea

1. Lehiaketan lortu diren lanpostuez jabetzeko epea hiru egun baliodunekoa izango da lanpostua bizi diren herrian lortu duten izangaiantzat, eta hilabetekoa, lehen destinoa bada edo lanpostua beste herri batean badago.

Epe hori kargua utzi ondoko egunetik aurrera kontatuko da, eta, kargua uztea, bestalde, dagozkion izendapenak ALHAOn argitaratu ondoko hiru egun baliodunen epe barruan hasiko da.

Ebazpenak zerbitzu aktiboan hasi beharra badakar berekin, lanpostuaz jabetzeko epea ebazpena argitaratzen den egunetik zenbatu beharko da.

2. Lanpostuez jabetzeko epea, interesatuei baimenak edo lizentziak eman zaizkienean, haiek amaitzen direnean hasiko da zenbatzen.

3. Zerbitzuaren arrazoiengatik, eta lanpostua utzi behar duen eta jabetzan hartu behar duen izangaiaren korporazioetako lehendakariak hala adostuta, atzeratu egin daiteke lanpostua uztea eta lanpostuaz jabetzea, gehienez ere hiru hilabetez. Jabetzan hartu behar den lanpostuaren korporazioko lehendakariak Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eman beharko die erabakiaren berri.

Salbuespenez, interesdunak eskaturik eta justifikatutako arrazoiengatik, lanpostuaz jabetzea ere denbora berdinez atzeratu ahal izango da, kasuan kasuko lehendakarien arteko akordio bat dela medio, horren berri emanda Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiari.

Hamargarrena. Destinoen ukazintasuna eta borondatezkotasuna

Adjudikatzen diren destinoak ukazinekoak izango dira, eta borondatezko izaera izango dute. Ondorioz, ez da ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko lekuz aldatzeagatik.

Hamaikagarrena. Lanpostua uztea eta lanpostuaz jabetzea

1. Lehiaketaren ebazpenaren arabera, lanpostu bat lortu duten lehiatzaileek aurreko lanpostua uzteko eta berriaz jabetzeko egin beharreko eginbideak bidaliko zaizkie Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiari, bi izapide horiek egin eta hurrengo hiru egun baliodunetan.

2. Lanpostuaz jabetzeak lanpostu horri loturik dauden eskubide eta betebeharrak hartzea dakar berekin, eta une horretatik aurrera funtzionarioa kasuan kasuko udalaren menpe egongo da.


Hamabigarrena. Errekurtsoak

Ebazpen hau behin betikoa da, amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka egin daiteke:

Administrazio publiko interesdunak zuzenean aurkaratu ahal izango du Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, 2 hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta nahi izanez gero aldez aurreko errekerimendua egin dezake.

• Interesdunak, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke ebazpena eman duen organoari, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita; bestela, zuzenean aurkaratu dezake Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria-Gasteizko Epaitegietan, 2 hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

Aurrekoek gainera, egoki irizitako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da, indarreko legediaren arabera.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Arabako Estaturako gaikuntza duen toki administrazio funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko 2024ko lehiaketa arrunterako deialdia</p> <p>Convocatoria de concurso ordinario 2024 para provisión de puestos vacantes en Álava reservados a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional</p> <p>I. ERANSKINA - ESKAERA ORRIA (1) ANEXO I - MODELO DE SOLICITUD (1)</p>
--	---

Lurralde Oreakaren eta
Lurralde Antolamenduaeren Saila

Departamento de Equilibrio Territorial
y Ordenación del Territorio

I. DATU PERTSONALAK ■ I. DATOS PERSONALES

Abizenak ■ Apellidos	
Izena ■ Nombre	
Nortasun agiri nazionala ■ Documento Nacional de Identidad	Langile Erregistroko zenbakia ■ Número de Registro de Personal
Helbidea (jakinarazpen eta komunikazioetarako) ■ Domicilio (a efectos de notificación y comunicaciones)	
Kalea eta zenbakia ■ Calle y número	
Posta kodea eta herria ■ Código postal y localidad	
Probintzia ■ Provincia	Telefonoa ■ Teléfono

II. DATU PROFESIONALAK ■ II. DATOS PROFESIONALES

Azpieskala (2) ■ Subescala (2)	Kategoria ■ Categoría
Lehiakidearen administrazio egoera ■ Situación administrativa en que se encuentra el/la concursante	
Oraingo destinoa ■ Destino actual	
Oraingo destinoan nola eta noiz izendatu zuten (3) ■ Forma y fecha del nombramiento en el destino actual (3)	

III. LANPOSTUA ZEIN TOKI ERAKUNDETAN DAGOEN ■ III. DATOS DEL PUESTO AL QUE SE CONCURSA

Lanpostua zein toki erakundetan dagoen ■ Entidad Local en que radica el puesto
Probintzia ■ Provincia
Lanpostuaren izena ■ Denominación del puesto

**I. ERANSKINA - ESKAERA ORRIA (1)**
ANEXO I - MODELO DE SOLICITUD (1)**IV. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA ■ IV. PERFIL LINGÜÍSTICO**

Egin nahi d(it)uzu euskararen jakite maila egiaztatzeko proba(k)?
¿Desea realizar prueba/s de acreditación del conocimiento del euskera?

BAI ■ SÍ EZ ■ NO

Adierazi zein hizkuntza eskakizun egiaztatu nahi duzun: 1. HE 2. HE 3. HE 4. HE
Perfil o perfiles lingüísticos que desea acreditar: PL1 PL2 PL3 PL4

Estaturako gaikuntza dutenentzako LEHIAKETA ARRUNTEAN parte hartzea eskatzen du; lehiaketa eguneko ebazpenaren bidez argitaratu zen (EHAAREN-ko alean), eta adierazitako lanpostura aurkeztu nahi du. Oinarri komunetako lehenengoan adierazten diren baztertze arrazoirik ez duela aitortzen du, eta jarraian zehazten diren agiriak aurkezten ditu.

Solicita tomar parte en el CONCURSO ORDINARIO para provisión de puestos vacantes reservados a personal funcionario de administración local con habilitación de carácter nacional, publicado por Resolución de fecha ("BOPV" de), al puesto de trabajo arriba indicado, declarando no estar incurso/a en ninguna de las causas de exclusión indicadas en la base primera de las comunes, y acompañando la documentación que se especifica a continuación.

.....
(Tokia, eguna eta sinadura / Lugar, Fecha y firma)

.....
ko toki korporazioaren lehendakari jauna/andrea
Sr/a Presidente/a de la Corporación Local de

AURKEZTUTAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ACOMPAÑA

Autonomia erkidegoaren hizkuntza jakiteko betebeharrari buruzkoak (berariazko oinarrietan agertzen bada)
Del requisito de conocimiento de la lengua de la Comunidad Autónoma respectiva (si ésta figura en las bases específicas)


Berariazko merezimenduei buruzkoak ■ De los méritos específicos

Autonomiarekin lotutako merezimenduei buruzkoak ■ De los méritos de determinación autonómica

- (1) Lehiaketan eskatzen den lanpostua bete gabe duen toki korporazio bakoitzaren lehendakariari bidali eskaera. Autonomia erkidegoko hizkuntzaren jakite maila egiaztatzeko agiriak erantsi, hala behar denean, bai eta berariazko merezimenduetan eta autonomiarri dagozkionak egiaztatzeko agiriak ere.
- (2) Eskaeran agertzen den lanposturako lehiatzea ahalbidetzen duen azpieskala baino ez da bete behar.
- (3) Behin betikoa edo behin-behinekoa.
- (4) Hizkuntza eskakizunen bat egiaztatzeari buruzko proba egin nahi izanez gero, proba eskaera hori Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzara bidali beharko da, adieraziz zein hizkuntza eskakizun egiaztatu beharko duten.

- (1) Enviar una solicitud al/a la Presidente/a de cada Corporación Local cuyo puesto se solicite en el concurso. Acompañar, en su caso, los documentos acreditativos del conocimiento de la lengua de la Comunidad Autónoma y la documentación acreditativa de los méritos específicos, de determinación autonómica y los referidos a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral alegados.
- (2) Cumplimentar sólo la subescala que faculta para concursar al puesto a que se refiere la presente solicitud.
- (3) Definitivo o provisional.
- (4) Si se desea realizar la prueba relativa a la acreditación del perfil lingüístico se deberá remitir a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Gobierno Vasco solicitud de realizar la prueba de acreditación del conocimiento de euskera, con indicación del perfil a acreditar.

2/2

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<p>Arabako Estaturako gaitzuntza duen toki administratzioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko 2024ko lehiaketa arrunterako deialdia</p> <p>Convocatoria de concurso ordinario 2024 para provisión de puestos vacantes en Álava reservados a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional</p>
	<p>II. ERANSKINA - DESTINOAK ESLEITZEKOLEHENTASUN ORDENAREN EREDUA (Lanpostu batera baino gehiagotara aurkeztu nahi denerako baino ez)</p> <p>ANEXO II - MODELO DE ORDEN DE PRELACIÓN EN LA ADJUDICACIÓN DE DESTINOS (Sólo en los supuestos de solicitud de varios puestos)</p>

Lurralde Oreakaren eta
Lurralde Antolamenduaren Saila

Departamento de Equilibrio Territorial
y Ordenación del Territorio

I. DATU PERTSONALAK ■ I. DATOS PERSONALES

Abizenak ■ Apellidos	
Izena ■ Nombre	
Nortasun agiri nazionala ■ Documento Nacional de Identidad	
Helbidea (jakinarazpen eta komunikazioetarako) ■ Domicilio (a efectos de notificación y comunicaciones)	
Kalea eta zenbakia ■ Calle y número:	
Posta kodea eta herria ■ Código postal y localidad	
Probintzia ■ Provincia	Telefonoa ■ Teléfono

II. DATU PROFESIONALAK ■ II. DATOS PROFESIONALES

Eskuratu nahi d(ir)en azpieskala(k) eta kategoría(k) ■ Subescala/s y categoría/s a la que se concursa
Lehiakidearen administratzioko egoera ■ Situación administrativa en que se encuentra el/la concursante
Oraingo destinoa ■ Destino actual
Oraingo destinoan nola eta noiz izendatu zuten (1) ■ Forma y fecha del nombramiento en el destino actual (1)

Estaturako gaitzuntza duten toki administratzioko funtzionarioentzat gordetako hainbat lanpostu betetzeko lehiaketatan batera parte hartzeko eskaera egin du. Lehiaketen deialdia batera egin da Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioarekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren ebazpen baten bidez (.....zenbakiko EHAA, (e) ko aren (e)koa). Horiek horrela, deialdi honen oinarri orokorren 2. oinarrian ezarritakoaren arabera, lehentasun orri hau aurkezten dio zuzendaritza horri eta Arabako Foru Aldundiari, eskatutako lanpostuetatik bi edo gehiago esleitzen badizkiote ere:

Habiendo solicitado tomar parte simultáneamente en distintos concursos de provisión de puestos de trabajo reservados a funcionarios/as de Administración Local con habilitación de carácter nacional, publicados conjuntamente por Resolución de la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos del Gobierno Vasco de fecha ("BOPV" número....., de fecha.....), formula ante esa Dirección y la Diputación Foral de Álava, de acuerdo con lo establecido en la base segunda 2, de las bases generales de la presente convocatoria, el siguiente orden de prelación para el supuesto de que le fueran adjudicados dos o más de los solicitados:

 **II. ERANSKINA - DESTINOAK ESLEITZEKOLEHENTASUN ORDENAREN EREDUA**
ANEXO II - MODELO DE ORDEN DE PRELACIÓN EN LA ADJUDICACIÓN DE DESTINOS

HURRENKERA ZENBAKIA Nº DE ORDEN	KORPORAZIOA ETA PROBINTZIA CORPORACIÓN Y PROVINCIA	LANPOSTUAREN IZENA NOMBRE DEL PUESTO
1º		
2º		
3º		
4º		
5º		
6º		
7º		
8º		
9º		
10º (2)		

(Data eta sinadura/ Fecha y firma)

(1) Behin betikoa edo behin-behinekoa.

(2) Gehitu lehentasunen zerrendan jarri nahi dituzun lanpostu adina zenbaki.

(1) Definitivo o provisional.

(2) Añádanse cuantos números sean precisos en función de la extensión que desee dar a la prelación.

III. ERANSKINA

LEHIAKETA ARRUNTAREN DEIALDIAN JASOTAKO LANPOSTU ZERRENDA

Azpieskala: idazkari-kontuhartzailea.

Hirugarren mailako idazkaritzak:

- Asparreneko Udala.
- Aiarako Udala.
- Bastidako Udala.

IV. ERANSKINA

Oinarri eta baremo espezifikoaren laburpena.

Hirugarren mailako idazkaritzak.

* ASPARRENEKO UDALA.

Izena: idazkaria.

Taldea: A1.

Eskala: estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioak.

Azpieskala: idazkari-kontuhartzailea.

Klasea: 3.

Plaza hutsen kopurua: 1.

Destino-osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 26.823,57 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 3; derrigortasun data: iraungita.

Elkarrizketa: ez dagokio.

Merezimendu espezifikoak: ez da halakorik aurreikusten.

Balioespen batzordearen osaera:

Batzordeburua: Arabako Foru Aldundiak izendatutako pertsona bat.

Batzordekideak:

EAEko Administrazioak izendatutako pertsona, epaimahaiko idazkaria izango dena.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa, deialdian jasotako lanpostuaren azpieskala berekoa edo handiagokoa.

* AIARAKO UDALA.

Izena: idazkaria.

Taldea: A1.

Eskala: estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioak.

Azpieskala: idazkari-kontuhartzailea.

Klasea: 3.

Plaza hutsen kopurua: 1.

Destino-osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 25.221,36 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun datarik gabe.

Elkarrizketa: ez dagokio.

Merezimendu espezifikoak: ez da halakorik aurreikusten.

Balioespen batzordearen osaera:

Batzordeburua: Arabako Foru Aldundiak izendatutako pertsona bat.

Batzordekideak:

EAEko Administrazioak izendatutako pertsona, epaimahaiko idazkaria izango dena.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa, deialdian jasotako lanpostuaren azpieskala berekoa edo handiagokoa.

* BASTIDAKO UDALA.

Izena: idazkaria.

Taldea: A1.

Eskala: estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioak.

Azpieskala: idazkari-kontuhartzailea.

Klasea: 3.

Plaza hutsen kopurua: 1.

Destino-osagarria: 27.

Berariazko osagarria: 21.794,94 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 3; derrigortasun datarik gabe.

Elkarrizketa: ez dagokio.

Merezimendu espezifikoak: ez da halakorik aurreikusten.

Balioespen batzordearen osaera:

Batzordeburua: Arabako Foru Aldundiak izendatutako pertsona bat.

Batzordekideak:

EAEko Administrazioak izendatutako pertsona, epaimahaiko idazkaria izango dena.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa, deialdian jasotako lanpostuaren azpieskala berekoa edo handiagokoa.